

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Osteguna, 2012ko martxoaren 15a. IX. urtea. 2.377. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## 26.800 tona hiri hondakin jaso dituzte 2011n, biztanleko egunean 1,22 kilo

Tolosaldeko Zabor Mankomunitateak azaldutakoaren arabera, pasa den urtean jasotakoaren %32,6 birziklatu zen eta gainontzekoa Sasietako zabortegira bota zen

Papera eta kartoia birziklatu da gehien, pasa den urtean 54 kilo biztanleko; udalek mankomunitateari lau milioi euro inguruko ekarpena egin zioten iaz ◊4-5

**Antxon Arza** Abenturazalea

«Piraguan, zure ezagutza eta ibaiaren indarra dituzu; nahi duzun lekuraino joan zaitezke horiekin»

‘Ur bideak’ izenburupean, bihar hasiko dira Amalur jardunaldiak Tolosako Topic-en; Antxon Arzak bere bizipenak kontatuko ditu ◊3



Antxon Arza paraplegikoa da eta aulki baten gainean eskiatzen du. HITZA



Ibarrako alkatea (erdian) eta zinegotziak, batzar aretoan, azalpenak ematen. I.TERRADILLOS

## Ibarrako Udalak 250.000 euro itzuli beharko ditu bi urteren buruan

Udal arduradunek azaldu dutenez, espero ez zuten diru kopuruari egin beharko diote aurre; udalerako lan egiten zuen arkitektoak jarritako salaketarengatik eta Zapatero Planarengatik sortu da zorra ◊6


## Euskaraz bizitzeko gonbita egin du Villabonako Euskal Herrian Euskarazek

Larunbatean Donostian egingo den Euskaraz Bizi Egunera joateko deialdia egin dute, «jaia eta aldarrikapenak uztartuz» ◊2

## Adinekoak hartu dituzte kontuan Igarondoko alokairuzko etxebizitzetan

Tolosako Udalak babes ofizialeko 24 etxebizitza jarriko ditu alokairuan; 70 urtetik gora dituzten herritarrentzat izango dira horietatik hogeitatu ◊2

**FUNERARIA VASCONGADA EHORZKETAK**  
902 402 900  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)



# Babes ofizialeko 24 etxebizitza alokairuan jarriko ditu udalak

Adineko jendearen beharrak asetzeko helburuz onartu dituzte, batik bat, egitasmoaren oinarriak

## Itzea Urkizu

Igarondoko eremuko babes ofizialeko 24 etxebizitza alokairuan jarriko ditu Tolosako Udalak, besteak beste, adineko pertsonen beharrei erantzuteko. Aitziber Lazkano etxebizitza teknikariak, eta Ibai Iriartek alkateak aurkeztu dute egitasmoa, eta herriko gazteekin pentsatuz ere sortu dute promozio hau. Iriartek, egitasmoa «oso pozgarria» dela azaldu du: «Alokairua da etxebizitzaren arazoari aurre giteko etorkizuneko konponbidea».

Igarondoko eremu berrian, guztira, babes ofizialeko 24 etxebizitza daude. Bi logela dituzte, eta trasteleku eta aparkaleku bana ere baditu etxebizitza bakoitzak.

Erabilgarriak diren etxebizitzaren azalerak, berriz, 58 eta 68 metro karratu bitartekoak dira.

24 etxebizitza hauek zozketa bidez esleitzeko, lau multzo bereziki dituzte udaleko arduradunek. Batetik, mugikortasun urri iraunkorra duten pertsonen taldea sailkatu dute; legeari jarraituz, egokitutako etxebizitza bat emango diote multzo honi. Babes bereziko gizarte egoeretan daudenen, berriz, beste bi etxebizitza lortzeko aukera izango dute; sail honetan beren kargura seme-alabak dituzten guraso bakarrek familiak, genero indarkeriaren biktimak diren emakumeak, bananduek eta dibortziatuak, nahiz ezintasun psikikoa dutela egiaztatzen duten pertsonak sartzen dira. Aipaturiko egoera berezietatik kanpo geratzen den talde orokorrari ere, etxebizitza bakarra esleitu dionte.

Azkenik, 70 urtetik gorako eskatzaileek osatuko dute laugarren multzoa. 20 etxebizitza esleitu ditzkiote sail honi, etxebizi-

tzen %85a, alegia. Ibai Iriartek «arreta merezi duen sektorea» dela nabarmendu du, eta adineko tolosar askok beren etxeetan iriste-erraztasun arazoak dituztela gogora ekarri du.

Tolosako Udalak eskatzaileen lau talde egin dituen arren, eskabide gutxi izaten badira, esleitu gabe geratzen diren etxebizitzak multzo orokorreko itxaron zerrendako herritarrei esleitu ditzkiote, etxebizitzaren inguruko arautegiak hala baitio.

## Gazteentzako ere aukerak

Babes ofizialeko etxebizitzetan edadetuak abantailak izango dituzten arren, egitasmo honek badu gazteei begirako bigarren zati bat ere. Izan ere, esleipenean aukeratzen dituzten herritarrak etxebizitza baten jabe baldin badira, eta salbuespen egoeraren batean baldin badaude, etxebizitza Tolosako Udalaren esku jarri beharko dute. Etxea bizitzeko egoera egokian baldin badago, udalak eta esleipendunak hitzarmen bat sinatuko dute, etxebizitza hori alokairuan jartzeko.

Hain zuzen ere, etxebizitza hauek eskainiko ditzkiote ondoren, 35 urtetik beherako gazteei, emantzipatzeko aukera eskainiz. Etxe hauen errenta eta baldintzak udalak jarriko ditu, eta jabeari zuzenean ordaindu beharko diete gazteek; hala ere, kasuan kasuko azterketa bat egin beharko dela azzimarratu du Aitziber Lazkano teknikariak, errenta zehazte aldera.



Aitziber Lazkano eta Ibai Iriarte, etxebizitzaren egitasmoa aurkezten. I. URKIZU

## ↓ Eskabideak onartzeko baldintzak

### HERRIAREKIKO LOTURA

- Urte betetik gorako epean Tolosan erroldatuta egotea.
- 15 urtez Tolosan bizi izana
- Tolosan lan egitea urte betetik gorako epean.

### ETxebizitzARIK EZA

- Eskatzaileek ezingo dute etxebizitza baten jabe izan, salbuespen egoeran ez baldin badaude (adibidez, 70 urtetik gorakoa izan, eta etxean irisgarritasun arazoak izatea).

### DIRU SARRERAK

- Urtean, batazbesteko, 3.000 eta 35.000 euro bitarteko diru sarrerak ziurtatu beharko dira.

### ESKABIDEEN EPEA

- Eskabidea eta dokumentazioa apirilaren 2rako aurkeztu beharko dira, 13:00erako.

### ZOZKETA BIDEZ

- Esleipenak zozketa bidez egingo dituzte

# Manu Azkarateren senide eta lagunak «larrituta» azaldu dira euroaginduarengatik

Elkarretaratzea egin dute tolosarrari babesa azaltzeko; maiatzaren 15era atzeratu dute auziaren ebazpena

## I. Urkizu

Manu Azkarateren senide eta lagunak «larritasuna» agertu zuten herenegun, Trianguloa plazan,

egindako elkarretaratzean. Ehun bat pertsona bildu ziren plazan, eta tolosarrari babesa eta elkartzuna ematea izan zuten helburu.

Bertaratuek, era berean, egoera berriari «arduratsua» erantzuteko eskatu zieten espainiar eta frantziar estatuei: «Herri honetan ez dugu horrelako erasorik onartzen».

Honen harira, Trianguloan egindako elkarretaratzean, Espainiako eta Frantziako gober-



Trianguloa plazan ehun lagun inguru bildu ziren. I. GARCIALANDA

nuek «Aieteko ondorioei erantzun gabe jarraitzea» ezinezkoztat jo zuten era berean: «Salbuespeneko legedi zein jokabideekin ere ezin dute jarraitu».

Pasa den martxoaren 7an, Frantziako polizia Ziburun (Lapurdi) atxilotu zuen Manu Azkarate, eta Paueko auzitegitik pasa eta gero, aske utzi zuten arratsaldez, tolosarra; epailearen aurrera joan beharko zuela esan zioten aske utzi zutenaren.

Hain zuzen ere, joan den astearteko, martxoaren 13rako, hitzordua zuen tolosarrak Paueko auzitegian, baina atzeratu egin

zioten deklaratzeko saioa. Espainiak euroagindua eskatu du Azkarateren aurka, eta Frantzia eskaera hori onartu edo ez erabakitzen ari da. Hau guztia dela eta, Manu Azkarateren auziaren ebazpena datorren maiatzaren 15era atzeratzea erabaki dute Paueko auzitegian.

Agerraldian, tolosarraren atxiloteta salatzearekin batera, datorren egunetan jardura gehiago antolatuko dituztela ere azaldu zuten, Manu Azkarateren egoera salatzeke, eta elkartzasuna adierazteke.

● tolosa@hitza.info

## Udalak herritarrekin osatu du inauterietako balorazioa

65.000 pertsona ibili dira trenez; autobusa ere, iaz baino jende gehiagok erabili du inauterietan

## I. Urkizu

Pasa den astean elkartu ziren Tolosako Udaleko ordezkariak herritarrekin, inauterietako balorazio bilera egiteko.

Udalak berak egindako lehen baloraziotik abiatuta, 2012ko inauterietako «normaltasun osoz» ospatu direla nabarmendu zuten bileran.

Balorazio berriko nabarmenena, garraio publikoaren erabileraren igoera izan da: 65.000 pertsona ibili ira trenean, eta autobusean ere jende gehiago ibili da. Ondorioz, Zaldunitan aparkalekuek ez zuten gainezka egin, okupazio handia izan zuten arren.

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Antxon Arza • Abenturazalea

# «Piraguak bestela iristen ez zaren lekuetara joateko aukera ematen dizu»

Imanol Garcia Landa Tolosa

Ur Bideak izenburupean antolatu dituzte aurtengo Amalur jardunaldiak Tolosan. Lehenengo hitzaldia bihar izango da, Topicen, 19:30ean. Antxon Arza (Iruñea, 1962) izango da lehen hizlaria. Ur lasterretan aitzindari izan da Pirinioetan, eta kontinente guztietan izan da *Al filo de lo imposible* telebista saioarekin hainbat ibai handi zeharkatuz piraguarekin. Istripu baten ondorioz paraplegiko geratu zen, eta orain gurgildun aukira erabiltzen du. Horrek ez dio kirola egitea eta naturaz gozatzeko gogorik kendu. Igeriketa, piraguismoa eta urpeko igeriketa egiten jarraitzen du, eskiatzen du, eta basamortutan bidaiatu izan du quad-ekin. **Zertaz arikozara hitzaldian?** Txikitari hasi nintzen joaten

mendira gurasoekin eta hori kontatuko dut, gaztetan eskalada egiten aritu nintzela ere aipatuko dut, eta aurrerago, *Al filo de lo imposible* programarekin egindako proiektuak ere izango ditut hizpide. Beste proiektu batzuk ere egiten nituen, eta horietako batean izan nuen istripua, eta hori ere kontatuko dut. Istripua gertatu eta gero hegalak moztzen zaizkizu baina zure ametsak eta ideiak jarraitzen dute, eta nola lagunekin eta jarrera positibo batekin lortu dezakez beste gauza batzuk egitea. Eta erakutsiko dut nola eskiatzen dudan auki batean, nola urpeko igeriketa egiten dudana...

**Istripua izateak ez dizu oztopatu gustuko gauzak egitea. Eredu bat izan zaitzake?**

Hala esaten dute, baina niretzat normala da; gauza berbera egiten duten beste asko ikusten ditut



HITZA

elurretan edo uretako eskia egiten. Hemen gero eta gehiago ikusten ditut horrelako gauzak egiten dituztenak.

**Bi modutara bizitu dituzu hainbat bidaiak, abentura eta kirol. Zentzumen garrantzia du buruak eta zenbat gorputzak, bizipen horietan?**

Burua da beti gorputzaren jabea. Hasieran mapa berri bat egin behar duzu, zure gorputza berriz ezagutzeko. Baina behin ohituta bazauz, gogoia baduzu eta talde on batekin bazauz, gauza pila bat egin ditzakezu berriz. Nik kirola egiten jarraitzen dut.

**Nola deskribatuko zenuke zer den ibai batetik joatea piraguan?**

Asko gustatzen zaidan zerbait da. Zuk zure ezagutza eta ibaiaren indarra erabiltzen dituzu, eta horiekin nahi duzun lekuraino joan zaitzake. Ur lasterretatik zoazenean, hiru dimentsioetako sententzia da, ura goian eta behean dagoelako, eta hori izugarri polita da. Gainera, piraguak bestela iristen ez zaren lekuetara joateko aukera ematen dizu.

**Munduko hainbat txokotan izan zara. Horietatik zein gustatu zaizu gehien?**

Txile oso polita da. Bertako ibaiak oso garbiak dira eta mendiak oso ederrak. Piraguaz ibiltzeko oso leku polita da. Nepal ere oso berezia da, ibai oso ederrak daude.

**Modu askotako ibaiak ezagutu zituen; batzuk garbiak, beste batzuk kutsatuak?**

Esate baterako, Korsikan orain 15 urte izan ginenean, eta han autoak ibaira botatzen zituzten, autoen hilerriak ziren. Andorran zabor guztia ibaira botatzen zen, eta Luzaiden ere hori ikusi izan dut. Zorionez horrelako gauzak aldatzen doaz, baina oraindik ibaiak planetaren estoldak dira.

Irudia • Irura



## EMUSIKO LANGILEEKIN BAT

LAB sindikatuak elkarretaratzea egin du Irurako Emusi enpresaren aurrean, bertako langileekin batera, hauel bere babesa eskaintzeko. *Gure indemnizazioak nahi ditugu* dioten pankarta erakutsiz egin dute elkarretaratzea. HITZA

## Harizpek Cuencara bidaiak antolatu du

I. Garcia Landa Tolosa

Tolosako Harizpe jubilatuen elkarteak bidaiak antolatu du Cuencara (Espainia). Maiatzaren 7tik 12ra izango da eta dagoeneko izena eman daiteke elkartean bertan. Bazkideek 349 euro ordaindu behar dituzte eta bazkideak ez direnrek lau euro gehiago. Bazkideak, txartela jasotzerakoan eguneratuta dagoen karneta erakutsi

behar dute. Pertsona bakarrarentzako logela nahi duenak 161 euro gehiago ordaindu beharko ditu. Bidaiarako txartelak erosteko aukera maiatzaren 3a arte izango da.

Bidaian hainbat leku bisitatu dituzte, batez ere, Cuenca eta bere ingurumek, tartean Cuervo ibai eta Priego. Prezioaren barne sartzen dira bidaiak aseguru eta gida.

## Euskaraz Bizi Egunera joateko gonbita egin du EHEk

Larunbatean, egun guztian, izango da festa eta aldarrikapena uztartuko dituen ekimena, Donostian

I. Garcia Landa Amasa-Villabona

Villabonako Euskal Herrian Euskarazek deialdia egin du Donostian, larunbatean, egingo den Euskaraz Bizi Egunera joateko. Egun horretan «jaia eta aldarrikapena uztartuz zapalkuntzari aurre egin eta Euskal Herri euskalduna eraikitze bidera hurbildu» nahi dituzte herritarrak. «Euskara eta euskaldunak menpeko bihurtzen gaituzten asimilazio estrategien aurrean euskaraz biziko den herrirantz bidea egiten joateko, inoren eta ezereen zain gelditu barik», gaineratu dute euskaltzaleek.

Bide luzea dagoela egiteko esan dute EHEkoek: «(Zan ere, geuri dagokigu euskaraz bizitzeko bidea egitea; auzolanetik, bakoitzak bere horretan eta guztioz batera, bidea egin eta aldaketak eragin ditzakegu». Euskaraz bizitzeko hautua egitea eta euskarari lehentasuna ematea norbanatik hasi behar dela diote. «Guk emateaz gain, lehentasunezko estatusa behar du euskarak bere lurralde osoan. Horretarako behar



Villabonako aljibearen aurrean egin dute agerraldia EHEko kideek. IGL

dugu kanpo esku hartzerik gabe, bertatik eta bertara erabakitako hizkuntza politikak burujabea, esan dute.

**Egitarau zabala**

Goizetik hasi eta gauera arte iraungo du aurtur hiru egunetan antolatzen duten Euskaraz Bizi Egunak. Besteak beste, Tolosako Bonberenea txarangak parte hartuko du ekitaldietan. Hain justu, 11:00etan botako den txupinazoarekin ekingo diote egunari,

eta hor parte hartuko du Bonberenea txarangak. *Euskalduna naiz eta harro nago!* da aurtengo Euskaraz Bizi Egunaren leloa. EHEK zehaztu duenez, «euskaldunok sasi artetik jauzia egin eta euskaldun izateaz harro gaudela erakusteko eguna izango da». Herri euskaldunaren eta euskararen alde egotetik harago, «horren alde egiteko prest gaudela erakusteko eguna» dela esan dute. Horren erakusgarri izango da 18:30ean egingo duten manifestazioa.

Beti nahi jatekoa

Garaian garaiko janariak Arraikiatan berezia

943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA



# Espero ez zuen 250.000 euroko galerari egin behar dio aurre udalak

Ibarrako Udalarentzat lan egin zuen arkitektoa eta Zapatero Plana daude ordainketaren atzean

**Iñigo Terradillos** Ibarra

Ibarrako Udal Gobernuak osatzen duen Bildu alderdiak jakitera eman duenez, beraiek alkatetza hartu eta «berehala eta inolako errurik izan gabe», bi auzitan murgildurik ikusi dute udala, eta 250.000 euroko ordainketari aurre egin beharra izango du ziurrenik bi urteren buruan. Udalerako lan egiten zuen arkitektoak jarririkako salaketa, eta Zapatero Plana deiturikoarekin buruturiko proiektua daude kopuru horren atzean.

Herenegun eginiko agerraldian, Jexux Peñagarikano alkateak azaldu zuenez, «egun, lurzorua legeak baimentzen du udal arkitektoa orduka kontratazea, baina, lehen ezin zen egin, eta udal txiki askok egun osorako kontratatze baliabiderik ez dutenez, zerbitzu jakin baterako kontratua egiten zitzairen». Bada, Ibarrako Udalak sistema hori erabili zuen arkitektoa kontratatze, eta horrela jardun zuen hainbat urtez.

Peñagarikanok dioenez, «azken kontratua berritzean, 2009an, udaletxean beste zeregin batzuk ere eman zitzaizkion arkitektoari, eta oporren aipamena ere egiten zen kontratuan». 2010. urtean, arkitekto postua lehiaketa bi-



Pasa den urteko jaietan bezala, aurten ere sagardo dastaketa egingo dute Berastegin. M. UGARTEMENDIA

dez jartzea erabaki zuen Ibarrako Udalak. «Ordura arte lan horiek egin zituen Rafael Poza arkitektoak ezin zuen aurkeztu, besteak beste, hizkuntza eskakizuna zuelako lanpostuak, eta ez zuelako betetzen», dio Ibarrako alkateak. 2011. urteko apirilean kontratua bukatzen zitzaiola esan zitzaion arkitektoari, eta Pozak erreklamazio bat aurkeztu zuen, bidegabeko kaleratzea izan zela argudiatuz.

Udalak ez zuen, baina, erreklamazio hori onartu, eta epaitegitara jo zuen. «Guk alkatetza hartu berritan hartu zuen gaiak auzitarako bidea. Azaroan iritsi zen udalaren aurkako epaia, eta Bilboko Auzitegi Gorenera eraman genuen auzia, eta han ere arkitektoaren aldekoa izan zen». Orain udalari geratzen zaion bide bakarra Madriler a jotzea da. «Kasazio errekurtsio bat jarriko dugu, eta

urtebete inguru itxaron beharko dugu epaia. 150.000 euro daude jokoan auzian, eta horrela, diru galera hori pixka bat atzeratu dugu, baina, datorren urteko aurrekontuan kopuru hori kontuan hartu beharko dugu», adierazi du Peñagarikanok.

## Zapatero plana

Beste «espero gabeko» ordainketa Zapatero Plana deiturikoaren ondorioz dator. Duela hiru urte udaletxean «telekomunikazio gela» berri bat jartzeko baliatu zuten ekimen hori. 91.000 euroko proiektua Madrilen onartu zuten hasieran, baina behin obra egin da, dirua itzultzeko eskatu zuten, «kontratazioa ez zelako behar bezala egin». Izan ere, Ibarrako alkateak dioenez, «ekimen hark kontratua enpresa bati egitea eskatzen zuen, eta Ibarrako Udalak zatika egin zituen kontratuak,

hainbat lantegi desberdini, alegia». Peñagarikanok gehitu duenez, «idazkaritzak jakinaren gainean jarri zuen orduko gobernua, eta horrelako zerbait gerta zitekeela azaldu zion, baina ez zuten gomendioa aintzat hartu». Bi aldiz errekurtsioa jarri dute, baina, epaia udalaren kontrakoa izan da, beraz, 80.000 euro itzuli behar izan dituzte, Madrilek eman zuen laguntzaren lehen zatia interesak batuta.

«Aurreko legegaldian egin zen kudeaketaren ondorioz», ordainketa horiei aurre egin behar die orain Ibarrako Udalak. «Bi urtetan, ia 250.000 euroko galera izango dugu, beraz, inbertsioetarako erabil genezakeen diru hori ez dugu izango, eta hau are eta larriagoa da gauden egoera, eta izango ditugun murrizketak kontuan hartuta», azaldu du Jexux Peñagarikanok.

## → Laburrak

### Ione Gorostazuren poema bildumaren aurkezpena

**TOLOSA** › Ione Gorostazu berastegiarrak bere lehen poema bilduma idatzi du, *Desegiten* (Elkar). Izatearen inguruko poema sorta da, bizitzaz, heriotzaz eta maitasunaz ari dena. Bada, Tolosako Errota tabernan aurkeztuko du liburua egileak, gaur, 20:30etik aurrera. Hain zuzen ere, aurkezpen-errezitaldia egingo du Gorostazuk Lierni Ugartemendia musikariari lagunduta.

### Berastegiko KZgunean tutorearen bisita egunak

**BERASTEGI** › KZgunean ondorengo bi astelehenetan tutorearen bisita izango da. 16:00etatik 20:00etara izango da tutorea, erabiltzaile ororen zalantzak argitzen.

### Udalekueetan izena emateko aukera

**IBARRA** › Aurten Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru aldundiek antolatzen dituzten udalekueetan 7 eta 13 urte bitarteko 4.560 haur inguruk hartuko dute parte. Ibarrako Udaletik udalekueetara joateko interesa duten gazteei adierazten diete udalekueetako tokien zozketan izena emateko martxoaren 15etik 23ra bitartean gazte informazio bulegoetan edo Interneten (*ibarrakoudala.net*-en dagoen lotura erabiliz, edo *gipuzkoagazteria.net/udalekueak*) egiteko aukera izango dutela.

## Irudia › Lizartza



## HONDAKINEN GAIA LANDUZ

Herrian duten «hondakinen arazoari» aurre egiteko sortu den Zero Zabor taldea aurkeztu dute Lizartzan. Euren asmoa «Gipuzkoako hondakinen arazoaren berri eman eta honi aurre egiteko Lizartzan Zero Zabor programa bat martxan jartzeko lanean aritzea» da. Hondakinen «murriztea, berrerabilpena etabirizklapena» dira dituzten hiru eginkizunak. HITZA

## Irudia › Ibarra



## HERRIRA MUGIMENDUAREN AURKEZPENA

Euskal preso eta iheslari politikoaren eskubideak bermatzeko helburuz sortu den Herrira mugimendua aurkeztu zuten herenegun, Ibarra. Mugimenduaren berri izatera hainbat ibartar gerturatu ziren kultur etxean egindako batza-

rrera. Herrira ez dagoela inongo alderdi politikoren menpe azaldu zuten, eta presoekiko eta iheslarietako elkartasun eta gizarteratze ekimenak burutu eta informazioa zabaltzea daukela izango dituen egitekoen artean. IT

# Ibarrako parrokiak teiltatuaren konponketa gastuei aurre egiteko laguntza eskatu du

60.000 euroko aurrekontua dute lanek; aldundiak eta Ibarrako udalak ez dute diru laguntzarik emango

**Iñigo Terradillos** Ibarra

2011. urteko abenduan hasi ziren Ibarrako parrokiaren teiltatua konpontzeko lanak, eta urtarrilean bukatu zituzten. 60.000 euroko aurrekontua izan dute obrek, eta parrokiaren batzarrak aurreikusitako zituen diru laguntzak jasoko ez dituztenez, herritarrei laguntza ekonomikoa eman dezaten eskatu die.

Ibarrako eraikin esanguratsuenetakoa da San Bartolome eliza. 1550ean Migel Idogarate hargin asteasuarrak hasi zituen eraikitze lanak, eta 1587an bukatu, Martin Agirre lizartzarrak. Bada, ordutik hainbat berritze lan egin behar izan dira parrokiaren azkenak, teiltatua. Izan ere, pasa den urteko udaberriaren mantentze lanetako teknikariek teiltatua oso egoera txarrean zegoela jakinarazi zioten batzarrari; beraz, hori konpontzea ezinbestekotzat jo zuten.

Teiltatua konpontzeko lanen aurrekontua 41.608 eurokoa izan da, eta proiektu osoarena —proiektua, segurtasuna, eraikinaren inspektzioa eta tasak barne— 60.000 eurokoa.

## Krisiaren eragina

Gotzaindegia kopuru horren %10 ordaintzeko konpromisoa hartu du. Ibarrako parrokiaren batzarrak azaldu duenez, «gisa horretako obrak egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiak aurrekontuen %50eko laguntza eman izan du orain arte, baina aurtun, krisi ekonomikoa argudiatuta, ez du inolako laguntzarik emango».



Ibarrako San Bartolome elizaren teiltatua konpondu dute. R.CALVO

Ibarrako Udalaren kasuan, diru laguntza «ona» eman izan duela adierazi du, «baina, krisiaren ondorioz, aurtun ez du laguntzarik emango».

Bada, laguntza ekonomikoak eliztarrengandik eta Ibarrako herritarrengandik etorri beharko duela uste du Ibarrako parrokiako batzarrak. Horregatik, herritar eta eliztar guztiei egin diete eskaera, «ahal duten neurrian laguntza eman».

Laguntza emateko, hainbat bide jarri dituzte. Batetik, Kutxan

(2101 0043 1900 0407 1114) eta Euskadiko Kutxan (3035 0141 8114 1000 6091) parrokiak dituen konputatu diru sarrera egiteko aukerara dago. Parrokiako hileko kuota ordaindu daiteke, edota gutunazal batean egin daiteke ekarpena. Edozein zalantza izanez gero, 943 57 61 79 telefono zenbakira deitu ahalko da.

Parrokiako batzarrak eskerrak eman nahi izan dizkie elizaren konponketan lagunduko duten guztiei.

◉ [ibarraldea@hitza.info](mailto:ibarraldea@hitza.info)

# Sahararen aldeko elkartasun kilometroa egingo dute gaur

Uzturpe ikastolak antolatu eta udalak lagundu duen ekimena da; 14:30etik 16:30era egingo dute korri

**I. Terradillos** Ibarra

Saharar errefuxiatuen kanpalekuetako Tichla herriari laguntzeko asmoz, II. Elkartasun Kilometroa egingo dute gaur Ibarran. Uzturpe ikastolak antolatu du ekimena elkarbizitza planaren barruan, eta Ibarrako Udalaren laguntza izan du.

Ekimen honekin, elkartasuna lantzeaz gain, ikasleak saharar errefuxiatuen kanpalekuetako eta zehazki Tichlako errealtateaz jabetuz, bertako ikastetxearen eta erietxearen azpiegitura hobetzeko dirua lortu nahi dute.

Maila guztietako ikasleek urtarriean Tichlako eta Saharako egoera ezagutzeko hainbat jarduerara burutu dituzte, eta kanpainari gaur emango diote bukaera, 14:30etik 16:30era Ibarrako plaza eta San Ignazio artean prestatu duten zirkuituari itzuliak emanez.

Parte hartzaileek zirkuitu horretan barrena lasterka egingo dute. Horretarako kilometro bakoitzeko dirua emango dien babesleak bilatu behar dituzte. Jasotako dirua udaleko arduradunen esku utziko dute ikastolako arduradunek.

Uzturpetik Ibarra eta Tichla herrien artean dauden 3.888 kilometroak egitera animatzen dituzte herritar guztiak.

Bestalde, antolaketa parte hartu nahi dutenek 14:15ean plazan agertu beharko dute.

◉ [ibarraldea@hitza.info](mailto:ibarraldea@hitza.info)

# Zuhaitz Eguna eta Larresorokoekin bazkaria Leaburun, asteburuan

Etzi landaketak egingo dituzte, eta igandean Larresoroko lagunekin tokan ariko dira eta bazkaria egingo dute

**I. Terradillos** Leaburu

Asteburu betea dute datorrena leaburuarrek. Batetik, etzi, larunbatean, Zuhaitz Eguna ospatuko dute, eta bestetik, igandean, Larresorokoekin bazkaria izango dute.

Etzi egingo duten Zuhaitz Egunari dagokionez, Leaburuko pla-

zan elkartuko dira 16:00etan, eta Txaraman, 16:30ean, eta udalak dituen lurretara joango dira landaketak egitera. Denetarikoz zuhaitzak landatuko dituzte, eta ekimena herritar guztiei irekia izango da.

## Lapurdiko lagunekin bazkaria

Urtero moduan, Larresoroko herritarrek Leaburukoekin biltzeko etorriko dira igandean. Hain zuzen ere, ikaztegiaren elkartuko dira. Lehendabizi tokan ariko dira, eta ondoren, sagardotegian bazkalduko dute. Leaburuarrak uztaila inguruan joango dira Larresorora, han festatxo egitera.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info) / Tel.: 943-65 56 95



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialdea, Irura, Larraut, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

**Agenda**

**DEIALDIK**

- **Tolosa.** Ahoz Aho jaialdiaren barruan, gaur: 16:00etan Laura Dippolito eta Jhon Ardila, Helduen Hezkuntza Iraunkorreak; 17:30ean haurrei zuzendutako Apika, Amarotzen; 20:00etan Enekora eta Falilou Diagne, Otsabin; eta 22:30ean Irantzu Mantxo eta Jhon Ardila, Orbela tabernan.
- **Amezketeta.** Ez ohiko osoko bilkura gaur, 20:30ean, udaletxeko batzar aretoan.
- **Tolosa.** Tolosa Kantariren hilaren 31ko saioa prestatzeko ensegua gaur, 20:00etan, musika eskolan.
- **Zizurkil.** 2012ko aurrekontuen berri emateko bilera irekia egingo dute gaur, 19:30ean, Atxulondo kultur etxean, euskaraz eta gaztelaniaz.
- **Berastegi.** Gazte Festen barruan gaur, 18:00etan pala txapelketa.

**BERTSOLARITZA**

- **Tolosa.** Lizardi elkarteak Galtzundik Bertso-zakuto afaria antolatuta duite biharko. Afaria Lizardin izango da eta txartelak Xirimiri eta Orbela tabernetan, eta Galtzaundiren egoitzan erosi daitezke.

**ZINEMA**

- **Tolosa.** Tolosaldeko 15M-k antolatuta *La Toma* gaur, 19:30ean, kultur etxean.

**ERAKUSKETAK**

- **Tolosa.** *Gelede mask* Topic zentroan ekainaren 10a arte.
- **Alegia.** Nerea Ugarteren sormen lanak Jubilatuen tabernan, martxoaren 19a bitarte.

**Irudia Tolosa**



**ESKIATU ETA ARGAZKIAK ATERA, BATERA**

Hirukide ikastetxeko Batxilergoko 2. mailako Miriam Dendaluce, Sara San Sebastian eta Leire Zabala ikasleek (irudian ezkerretik eskuinera) Donostiako Tecnun zentroak antolatuta duen Asmamen eta Diseinu Lehiaketa irabazi dute. Ordenagailuz diseinatu duten *Kameraradun elur-bisuts betaurrekoak* izeneko lanarengatik eman diete,

hain justu, Gaztenpresa saria. Eskiatzen den bitartean argazkiak ateratzeko aukera ematen duen sistema diseinatu dute hiru gazteek. Hilaren 30ean jasoko dute saria. Tecnunen bertan, eta lana Jabi Luengo irakasleak bideratu du eskolan ematen duen Ordenagailuaren Bidezko Diseinua ikasgaiari. HITZA

**Agurrak**


**AGURRAK**

943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)



**Tolosan etxe adosatua salgai:** eguzkitua, lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldea, bi autorentzako garajea, txokoa, jardina eta trastelekua.

Interesatuak, deitu  
**678 267657**  
telefono zenbakira.



**AKUIOLA  
NEKAZALTURISMOA**

Laxer izotza - Akuiola Baserria, 2 40260  
GIZABURUAGA ( BELZAKA )

Tolosa: (+34) 946 841 213  
699 587 426  
E-posta: akuiola@netbas.com  
Web: www.netbas.net/akuiola